

## :NEREA DA

*Erakarpen zoragarria du izadiak: orratz antzeko arkaitz puntak, urrezko ostoz eundutako tantai arteak; ortze urdiñara;2 urdiña goian arnas aundiko, oroldi artean suge antzo doan zillar-errekaren polpol ezti, egaztien egada jasezkoa... Zer ez? Zoragarria, ziñez, gure euskal lurra! Guzti au ikusiz ta oartz, baseritarrari laster arrotzen zaió irudimena ta biotz-ondoa asazkatu. Eta, askotan, den ori abestearren, berebiziko egiñalak, katazkek eta inkezak egin oi dizkigu.*

**Doiñu:** «Loriak udan...»

Lur-azal ditut bi belarriak  
zerbait aditu naiean;  
meatz intzira dantzut gogotik  
lurraren sabel barnean,  
ta ura darion sorburu leuna  
asper gabeko aidan,  
lertu-bearrez arri ta sustrai  
bakoitza bere otsean..,

Aritz buruan txoriak kanta,  
baso piztiak oiva,  
berderik zaigu negu ostean  
zumar-altzaren kimua,  
bat-batean da belarra erne  
eldurik bere ordua,  
gazteak ere biotza malutz  
erauzi dute ujua,

Ibar ta mendi, arkaitz zerrenda,  
eremuko lur elkorra,  
ola ta etxe, baserri zuri,  
zelaian zoar txekorra.  
Kantauri ere, erraldoi belatz,  
gure lantegi, alorra:  
guzti au dugu Jaunak emanik  
euskaldunaren altxorra.

Euskaldun jator-, goral ezazu  
duzun aintzazko zoria;  
arri atoan emen ziñan zu,  
auxe zure lur-aldia,  
geroztik ere gurbilki asko  
—lurrari kenduz ogia—  
ementxe duzu menderik mende  
igaro zeure bizia.

Etsairik naiko izan dituzu  
orain bezela lenago:  
erromatarrak onera ziran  
zuri bizkarra mozteko,  
iber, arabe, godu ta izurri  
*el* zitzaizkizun guztizko;  
anai arteko liskar zitalak  
ondata zindun geroko.

Zuk ala ere dirauzu gordin,  
ez duzu gogo ilterik;  
ekaitz ostean lainoz ase  
dirdir dagizu eguzkik,  
orobat, ene aberri maite,  
zaitut arnaska oraindik,  
besoak zabal, emakor beti,  
ainitz urtez bizi nairik.

Zukin dauzkazu nere abenda  
indartsuaren orriak,  
egite zintzo, oitura garbi  
armarrian ida tziak:  
egintari ta jakintsu aundi  
ez dira ezetsiak—;  
oien izenez daude jantzita  
euskaldun erri ta uriak.

Mendi-mazelak, aran ondoak  
zer ez al duzu auzoan?—  
gertaera ta gomutagarriz  
gaiñezka dira osoan.  
Bear bezela gure edestia  
t'odola osatzekoan,  
ori da sartzen aberriaren  
abots-eresi goxoan.

Gure musika, euskal kantagai,  
mintzaera, esan ñabar,  
Jainko ta lege, odol-zain sotil,  
aurretikoen dantza zar,  
asaben lurra —izerdiz ordi—,  
oro nai, kemen ta suar:  
gure aberri izamen onek  
dagi euskalduna zangar.

Gaur, ene erria! , eskubidez aul,  
erdi itorik zakustaz,  
txit eroria fedez ta legez,  
izkuntza, jolas, oituraz.  
Baiña nai dizut muiñean ixur  
ene baserri kemenaz-  
izate barne zindo dakartan  
bizi-lera, euskal arnas.